



Espediente zk./Nº expediente: 2024SDBD0038

Gaia/Asunto: 2.1 Dirulaguntza lerroa: Aurreikusitako jarduerak - 2025 / Línea de subvención 2.1: Actividades previstas - 2025

Eskatzailea/Solicitante: ERREENTERIAKO UDALA

NAN(IFK)/DNI(NIF): P2007200E

Kokalekua/Emplazamiento: ERREENTERIA

2.1. DIRULAGUNTZA LERROA – AURREIKUSITAKO JARDUERAK -2025. OINARRI ESPEZIFIKOAK
LÍNEA DE SUBVENCIÓN 2.1. - ACTIVIDADES PREVISTAS -.2025. BASES ESPECÍFICAS

1.- Dirulaguntzaren xedea

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, Erreenterian kokaturiko eta irabazi-asmorik ez duten gazte elkarteek edo bestelako entitateek antolaturiko gazteria alorreko jarduera programak kofinantatzeko helburuarekin. Horrez gain, horien helburuek bat etorri beharko dute Udalaren Gazteria Departamentuak dituenekin.

2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehieneko kopurua

Aurrekontu exekuzio udal arauan oinarrituta, deialdi hau aldeztu aurretik izapidetzen ari da; hau da, ebazpena eman eta gastua exekutatu aurreko aurrekontu-ekitaldi batean

Gazteria alorreko jarduera programak kofinantatzeko dirulaguntzen zenbatekoa 2025eko aurrekontuko ondorengo partidaren kontura izango da.

– 2025: 1.0630.481.01.337.20: dirulaguntzak: Gazte entitateak, aurreikusitako jarduerak, 2025eko aurrekontuari dagokiona (%100).

Diruz lagunduko den leerro honetarako 2025 urterako dagoen aurrekontua 15.000,00€koa da.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste

1.- Objeto de la subvención

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para cofinanciar e impulsar programas de actividades juveniles en Erreenteria, organizadas y llevadas a cabo por asociaciones juveniles u otras entidades sin ánimo de lucro radicadas en el municipio, que incidan directamente en la población juvenil y cuyos fines sean acordes con los objetivos del Departamento de Juventud del Ayuntamiento.

2.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones

En base a la norma municipal de ejecución presupuestaria, esta convocatoria está siendo tramitada anticipadamente; es decir, en un ejercicio presupuestario anterior a la de su resolución y ejecución del gasto.

El importe de las subvenciones para cofinanciar programas de actividades juveniles irá con cargo a la siguiente partida del presupuesto del año 2025:

– 2025: 1.0630.481.01.337.20: Subvenciones: Entidades juveniles, actividades previstas del ejercicio 2025 (100%).

La disponibilidad presupuestaria para estas líneas de subvención para el año 2025, asciende a 15.000,00 €

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas,



dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin.

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean baitago.

Ondoren, egoki den kreditu aldaketaren bitartez partida horien kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

2025eko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin beharko du dauden kredituetara egokitze aldera.

3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era

Oro har, dirulaguntzetarako aukera izan dezakete gazteek, gazteekin eta gazteria intereseko jarduerak gauzatzen dituzten Errenterian kokaturiko pertsona fisikoek edo irabazi-asmorik gabeko entitate juridikoek.

Salbuespen gisa, Errenteriatik kanpo kokaturiko pertsonak edo entitateek dirulaguntzetarako aukera izan dezakete, jardueraren zati nabarmen bat udalerrian bertan gauzatu edo herriarentzat interesgarria dela jotzen bada.

Irabazi-asmorik gabeko elkartetzat hartuko dira elkartearen helburuekin bat datozen jarduerak burutu eta etekinak elkarrekin lortu nahi dituen helburuetan inbertitzen dutenak.

Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek eskabidearekin batera aurkeztu

ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Esta cuantía total máxima tiene carácter estimado, puesto que está condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de resolución de la concesión.

Si dichas partidas posteriormente fuesen ampliadas en base a la correspondiente modificación presupuestaria, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria.

En caso de que el crédito aprobado en el presupuesto de 2025 fuera inferior, deberá ajustarse a la baja la propuesta de resolución a los créditos existentes.

3.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos

Con carácter general podrán optar a las subvenciones las personas físicas o entidades jurídicas sin ánimo de lucro radicadas en Errenteria formadas por jóvenes y/o que realicen actividades de interés juvenil con y para las y los jóvenes.

Excepcionalmente, podrán acceder a las ayudas las personas o entidades radicadas fuera de Errenteria cuando una parte apreciable de su actividad se desarrolle dentro del ámbito del municipio o se considere de interés para el mismo.

Se consideran asociaciones sin ánimo de lucro aquellas que desarrollen actividades acordes con el objeto de la asociación y cuyos beneficios se inviertan en los fines que persigue la asociación.

Documentación a presentar con la solicitud:

Los solicitantes deberán presentar con la solicitud,



beharko dute, Errenteriako Udalak 2025. urtean diru-laguntzak emateko oinarri orokorretako seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako agiri hauek:

- Eskaria egiten duen erakundeak kontu korronte bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.
- Proiektuaren aurrekontua eta memoria (beharrezkoa balitz eskaera orriaz aparte aurkeztu

beharko dira).

Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako ziurtagiriak edo tituluak aurkeztu beharko ditu.

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia – Nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra – Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainketa egunean izatearen kontsulta.
- Foru-ogasunak – Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

4.- Eskabideak aurkezteko epea

Aurreikusitako jarduera programetarako dirulaguntzetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

de acuerdo con lo establecido en la base Sexta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025, la siguiente documentación:

- Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la entidad solicitante.
- Presupuesto y memoria del proyecto (si fuera necesario se adjuntarán al impreso de solicitud).

El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberá aportar las certificaciones o títulos exigidos en la convocatoria:

- Dirección General de la Policía – Consulta y verificación de datos de identidad.
- Tesorería General de la Seguridad Social – Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social.
- Diputación Foral de Gipuzkoa – Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

4.- Plazo de presentación de solicitudes

El plazo para la presentación de las solicitudes de subvención para programas de actividades previstas será de un mes a contar desde el día siguiente a que se publique la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.



5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak

Eskabideak baloratzeko irizpidea norgehiagoka izango da.

Helburu honetarako urtero onartzen den aurrekontu partidako kopurua onartutako eskaera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da, jarraian agertzen den taularen arabera, eta horrela puntu bakoitzaren balore ekonomikoa kalkulatu da. Puntu bakoitzaren balore ekonomiko hori eskari bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin biderkatuko da, eta horrek emango digu jaso beharreko diru-kopuruaren zenbatekoa.

Eskari guztietan ondorengo irizpide objektiboak ezarriko dira:

5.- Criterios de valoración de las solicitudes

El criterio de valoración de las solicitudes será el de concurrencia competitiva.

La partida presupuestaria aprobada anualmente para este concepto se dividirá entre la suma de puntos otorgados a todas las solicitudes admitidas, de la manera que aparece en la tabla que sigue a continuación, y así se calculará el valor económico de un punto. Este valor económico de cada punto se multiplicará por los puntos conseguidos por cada solicitud, lo que determinará la cuantía a percibir.

En todas las solicitudes se aplicarán los siguientes criterios objetivos:

ELKARTE DAGOZKIONAK	ESKATZAILEARI	18/	EN CUANTO A LA ASOCIACIÓN SOLICITANTE
Elkartearen ibilbidea, errotzea, iraunkortasuna eta egonkortasuna			Trayectoria, arraigo, continuidad y estabilidad de la asociación
Sorrera urtea	(1)		<i>Año de constitución</i>
1999 urtea aurretik	1		Antes de 1999
2000 –	0		2000 –
Bazkide kopurua	(1)		<i>Nº de socias y socios</i>
.... – 50	0		 – 50
51 baino gehiago–	1		Más de 51 –
Bolondres kopurua	(1)		<i>Nº de personas voluntarias</i>
.... – 50	0		 – 50
51 baino gehiago–	1		Más de 51 –
30 urtetik beherako bazkideak	(2)		<i>Socias y socios menores de 30 años</i>
.... – % 50	0		 – 50 %
% 51 – 75	1		51 – 75 %
% 76 – 100	2		76 – 100 %
Emakumezkoak / gizonezkoak / besteak	(2)		<i>Mujeres / hombres / otros</i>
Emakumezkoak soilik - gizonezkoak soilik	0		Sólo mujeres – sólo hombres
Desoreka	1		Desequilibrio
Orekatua (% 40 – 60)	2		Equilibrio (40 – 60 %)



Jarduera kolektiboetan eta/edo udal jardueretan parte hartzea	Gehienez 5/ máximo	Participación en actividades colectivas y/o municipales
0,5 puntu jarduera bakoitzeko		0,5 puntos por cada actividad
Lokala / instalazioak	(2)	<i>Local / instalaciones</i>
Udalak utzitako lokala	0	Cedido por el Ayuntamiento
Udal lokala + gastuak elkartearen gain	1	Cedido por el Ayuntamiento, haciéndose cargo de los gastos la Asociación
Udal lokala, beste elkarrekin batera	1	Cedido por el Ayuntamiento, compartido
Jabetza pribatukoa	2	Propiedad privada
Finantza baliabideak	(4)	<i>Recursos financieros</i>
Autofinantzazioa (%)		Autofinanciación (%)
% 50 – 60	1	50 – 60 %
% 61 – 70	2	61 – 70 %
% 71 – 80	3	71 – 80 %
% 81 – 100	4	81 – 100 %
PROGRAMA / JARDUERAREN INGURUKOAK	75/	EN CUANTO AL PROGRAMA / ACTIVIDAD
Programaren ibilbidea, izaera eta aldizkakotasuna		<i>Trayectoria, naturaleza y periodicidad del programa</i>
Jarduera programa: 2025 urtean egingo diren jardueren zerrenda	Gehienez 4/ Máximo	<i>Programa de actividades: relación de actividades previstas para el año 2025</i>
0,5 puntu jarduera bakoitzeko		0,5 puntos por cada actividad
Jardueren iraupena eta aldizkakotasuna	(4)	<i>Duración y periodicidad de las actividades</i>
Urtean behineko jarduera	1	Actividad anual puntual
Noizbehinkako jarduerak	2	Varias actividades puntuales
Urtean zehar	4	A lo largo del año
Programaren kalitatea: hezkuntza, genero eta kulturartekotasun ikuspegia		<i>Calidad del programa: perspectiva educativa, de género e intercultural</i>
Programa hezitzailea	(9)	<i>Programa educativo</i>
Balore indibidualen ordezkari kolektiboak sustatzea	3	Potenciar los valores colectivos, en lugar de los individuales
Bazterkeria egoerak pairatzen dituzten kolektiboekiko errespetuzko eta elkartasuneko jarduerak sustatzea	3	Promover actitudes de respeto y solidaridad hacia colectivos y/o personas en situación de exclusión social



Jardueren antolakuntzan sustatzea subjektu aktibo bilakatzea kide oro	3	Promover la transformación de todas y todos los miembros en sujetos activos a la hora de organizar las actividades
Genero ikuspegia	(8)	<i>Perspectiva de género</i>
Hizkuntza ez sexistari erreparatzea	2	Uso no sexista del lenguaje
Genero ikuspegia txertatzen da proiektuaren helburuetan	2	Incorporación del punto de vista de género en los objetivos del proyecto
Genero ikuspegia txertatzen da proposatutako jardueretan	2	Incorporación del punto de vista de género en las actividades propuestas
Genero ikuspegia txertatzen da proiektuaren ebaluaketan	2	Incorporación del punto de vista de género en la evaluación
Kulturartekotasuna	(8)	<i>Interculturalidad</i>
Kartel, eskuorri edo/eta erabiltzen diren irudi grafikoetan kultura eta jatorri aniztasuna islatzea	2	Reflejar diversidad de orígenes y cultural en aquellos carteles, dípticos o materiales gráficos que se realicen
Gonbitetan, esku-orrietan herrian dauden bestelako hizkuntzak erabiltzen dira	2	Utilización de diversas lenguas que existen en el municipio en invitaciones, folletos....
Egiten diren ekintzetan herrira iritsi berriak diren edo/eta bestelako jatorria dutenen parte hartzea sustatzea	2	Impulsar la participación de las personas recién llegadas al municipio así como aquellas de orígenes diversos
Ekintzak ahalbidetzen duela, kultura arteko adierazpenak txertatzea	2	Siempre y cuando la actividad lo permita, incorporar expresiones interculturales
Programa / jarduera euskaraz garatzea	(8)	<i>Desarrollo del programa / actividad en euskera</i>
Ele bitan	4	Todo en bilingüe
Euskara hutsez	8	Todo únicamente en euskera
Jarduera berriak, berritzaileak eta antzekorik ez izatea	Gehienez 5/ máximo	<i>Actividades nuevas, novedosas e inexistencia de actividades similares</i>
0,5 puntu jarduera bakoitzeko	0,5 puntos por cada actividad	
Herritarren esku-hartzea sustatzea, beste entitate eta eragile batzuekin lankidetzat	<i>Promoción de la participación ciudadana, colaboración con otras entidades y agentes</i>	
Herritarrei parte hartzeko aukera ematea	Gehienez 3/ máximo	<i>Oportunidad para la participación ciudadana</i>
0,5 puntu jarduera bakoitzeko	0,5 puntos por cada actividad	
Jarduera elkarte batek baino gehiagok antolatzea	Gehienez 4/ máximo	<i>Actividad organizada por más de una asociación</i>



0,5 puntu jarduera bakoitzeko		0,5 puntos por cada actividad
Boluntarioen lana	Gehienez 3/ máximo	<i>Trabajo de voluntarias y voluntarios</i>
0,5 puntu jarduera bakoitzeko		0,5 puntos por cada actividad
Hartzaileak	(10)	<i>Destinatarias y destinatarios</i>
Herritar ororentzat, haur eta gazteak barne	5	Destinado a toda la ciudadanía incluidos menores y jóvenes
Haur eta gazteei zuzendutako programa / jarduera	10	Programa / actividad dirigida a niñas y niños y jóvenes
Programaren proiektzioa	(6)	<i>Proyección del programa</i>
Soilik elkartearen inguruko proiektzioa	0	Únicamente con proyección en el entorno de la asociación
Elkartea eta eskualdean	4	En la asociación y la comarca
Elkartean eta herrian	6	En la Asociación y el municipio

6.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

% 60 dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.

% 40 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Gastu horiek 2025 urtean eginak eta ordaindutakoak izan beharko dute.

7.- Dirulaguntzaren justifikazioa

Dirulaguntzaren bigarren ordainketa diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hori aurkezteko epe muga 2026ko urtarrilaren 31 izango da.

6.- Abono de la subvención

Los importes de subvención serán abonados de la siguiente forma:

60 % tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.

40 % tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

Dichos gastos deberán haberse realizado y abonado durante el ejercicio 2025.

7.- Justificación de la subvención

El segundo pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 31 de enero de 2026.



Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, Errenteriako Udalak 2025 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko oinarri orokorren hemezortzigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.

b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da Errenteriako Udalak 2025 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko oinarri orokorrei jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoctava de las bases generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025:

a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.

b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

Nota importante: esta convocatoria deviene de las bases generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.

